



Ebazpena, 2017ko maiatzaren 18koa, Hezkuntza Berriztatze zuzendariarena, zeinaren bidez ebatzi egiten baita Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoei IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko egindako deia

Hezkuntza sailburuordearen 2016ko azaroaren 23ko Jarraibideen bitartez Euskal Autonomi Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxe publiko eta itunpekoei IKT Heldutasuna ziurtagiriak eskuratzeko deia egiten da. Hiru maila daude, eta ikastetxeek edozeinen ziurtagiria eska dezakete, aldez aurretik, aurreko maila dutela egiaztatu behar izan gabe.

Eskabideak aurkezteko epea bukatuta, aztertuak eta sailburuordearen 2016ko azaroaren 23ko Jarraibideetan ezarritakoarekin bat etorritz eta Hautaketa Batzordeak proposatuta, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.- Eranskineko zerrendan azaltzen diren ikastetxeei bertan jasotzen den IKT Heldutasuna maila esleitzea.

Bigarrena.- Ebazpen honen aurka egiteko, ikastetxeek erreklamazioa jar diezaiokete Hezkuntza sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpenaren jakinarazpena jaso eta biharamunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2017ko maiatzaren 18a

LUCIA TORREALDAY BERRUECO
HEZKUNTZA BERRIZTATZEKO ZUZENDARIA